

KALITATE-POLITIKA



HURKOA ZAINDUZ erakundeak kudeatutako Nuestra Señora de las Mercedes eguneko zentroaren helburua haren misioarekin bat dator, hau da, menpekotasun-egoeran dauden adinekoen eta haiek zaintzen dituzten familien bizi-kalitatea hobetzeko zerbitzuak ematea, eta haiek une oro zainduta egon daitezen eta beren ingurunean bizitzen jarraitu ahal izan dezaten laguntzea.

Helburu hori lortzeko, gure KALITATE-POLITIKAREN printzipio hauek funtsezkoak direla uste dugu:

- ⇒ Ematen ditugun zerbitzuak eta prozesuak **alderdi interesdunen beharretara eta itxaropenetara** bideratzea (pertsonek erabiltzaileak, familiak eta beste talde interesdun batzuk).
- ⇒ **Pertsonarengan ardazturiko arreta ematea**, ikuspegi integral batetik, eta pertsona erabiltzaileak antolaketaren eta jardun profesionalen ardatz nagusia izatea esku-hartzean.
- ⇒ Familia zaintzaileei **behar duten laguntza ematea**, eta familia horien zaintzeko ahalmena indartzea, haien bizi-kalitatea hobetuko duten estrategia egokiak erabilia.
- ⇒ **Baldintzak betetzen direla** ziurtatzea, legezkoak eta arauzkoak barne.
- ⇒ Zerbitzua emateko ardura duten erakundeekin eta elkarteekin **lankidetzan on eta eraginkor** bat izaten saiatzea.
- ⇒ Lan-giroan motibazioa, errespetua eta parte-hartzea sustatzea, pertsonen arteko harremanak zainduta eta gure erakundearen lan egiten duten pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzeko neurriak hartuta.
- ⇒ **Langileei informazioa eta heziketa** eskaintzea, kalitatean eta etengabeko hobekuntzan gehiago inplikatu daitezkeen tresna gisa.
- ⇒ Hobetzeko aukerak profesionalen taldearekin batera aztertzea, eta etengabeko hobekuntzarako baldintza aproposenak sortzea, bai laguntza emateko eta bai kudeaketa-sistema eraginkor egiteko.
- ⇒ Zentroaren estrategian eta kudeaketan zeharkako zenbait politika integratzea, hala nola gardentasunekoak, berdintasunekoak eta euskararen erabilera sustatzekoak, hizkuntza-eskubideekiko errespetua oinarri hartuta.

Zuzendaritzak ziurtatu behar du erakundeak eta beste alderdi interesdun batzuetako pertsona guztiek printzipio horiek ezagutzea eta ulertzea, eta urteko helburuetan politika hori egiteko konpromisoa hartzen du.

Izpta.:

  2018ko apirilaren 25a